

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Donostian euskararen erabilera normalizatzeko tresna publikoa izanik, bere helburuen eta egitekoen barne hartzen du donostiarren euskalduntzea sustatzea. Horiek horrela, azken urteetan aurrera eramaten ari den ekimenari segida emanez, Euskara Zerbitzuak, 2025-2026 ikasturtean, donostiarrei edota Donostian lan egiten dutenei euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzak emateko oinarriak finkatu ditu.

Dirulaguntza hauen finantzaketarako 2026ko aurrekontuko 304.249,00 euroko diru kopurua erabiliko da, kopuru hau aurreikuspenezko zenbatespena da, hori dela eta, ohartarazten da laguntzen emakida ez dela egingo Donostiako Udaleko aurrekontuaren luzapena edo 2026. urteko aurrekontua onetsi aurretik eta bertan dirulaguntza hauek emateko kreditua badagoela egiaztatu arte.

Oinarrien arabera, donostiarrek edota Donostian lan egiten dutenek eska dezakete dirulaguntza, betiere HABEk homologatutako euskaltegiren batean ikasten badute. Dirulaguntza jasotzeko, berriz, oinarrietan adierazitako agiriak dagozkien epeetan aurkezteaz gain, gutxienez azpimaila bat gainditu eta %75eko asistentzia izan behar dute. Diru kopurua gainditutako azpimailen arabera finkatzen da. HABEk emandako dirulaguntza osatuko du Udalak eta ezingo da gainfinantzaketarik egon. Aurrekontu osoa oinarrietan zehaztutako baldintza guztiak betetzen dituzten guztien artean banatzen da.

Horiek horrela, Kulturako, Euskarako eta Turismo zinegotzi-ordezkariek honako erabakiak hartzea proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

ERABAKIAK

1. 2025-2026 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntza publikoa emateko prozedura arautuko duten oinarriak onestea.
2. Onestea dirulaguntza hauen finantzaketarako 2026ko aurrekontuko 304.249,00 euroko diru kopurua erabiltzea, kopuru hau aurreikuspenezko zenbatespena da, hori dela eta, ohartarazten da laguntzen emakida ez dela egingo Donostiako Udaleko aurrekontuaren luzapena edo 2026. urteko aurrekontua onetsi aurretik eta bertan dirulaguntza hauek emateko kreditua badagoela egiaztatu arte.
3. Oinarri hauen ondorioz izango den gastua Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuko 2026ko ekitaldiko aurrekontuaren, euskara programako, 480.01 kontu sailari egozteko baimena ematea.
4. Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko onespena ematea.

Donostian, sinaduraren egunean

KULTURAKO, EUSKARAKO ETA TURISMOKO ZINEGOTZI-ORDEZKARIA

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

HIZKUNTZA NORMALIZATZAILEA